



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2018KO URTARRILAREN 8KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2018.01.08.
Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Mentxu Peña Lizarazu and.
Zinegotziak:
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.
Ander Almandoz Indakoetxea jn.
Juan M. Gonzalez Burguete jn.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Iñigo Sarrias Zoco jn.
Igor Ugalde Salazar jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.- Vicente Arocena Andueza jauna: Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketaren behin behineko onespena.
- 3.-Ziaurrizko Kontzejuko eskaera.
- 4.-Alkatearen ebazpenak.
- 5.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2017ko abenduaren 11an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE, aldaketa hauekin:

-3. puntuan, honela dioen lekuan: 4. poligonoko 51. lur zatia, honela behar du: 4. poligonoko 130. eta 209. lur zatiak.

-4. puntuan, honela dioen lekuan: 6. poligonoko 342. lur zatia, honela behar du: 6. poligonoko 53. lur zatia.

-7. puntuan, honela dioen lekuan: Simon Iturria Alzuri jaunari jakinaraztea bertako zuhaitzak (pinu insignis) herrikoak direla eta Udalak probextuko dituela, honela behar du: Simon Iturria Alzuri jaunari jakinaraztea bertako zuhaitzak (pinu insignis eta bertzelakoak) herrikoak direla eta Udalak probextuko dituela.

2.- VICENTE AROCENA ANDUEZA JAUNA: ARANTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETAREN BEHIN BEHINEKO ONESPENA.

Arantzako Udalak, 2017ko urriaren 6an egindako bileran, erabaki zuen Vicente Arocena Andueza jaunak sustatutako Arantzako Arau Subsidiarioen egiturazko aldaketa hasiera batez onartzea, 5. poligonoko 347. eta 348. lur zatiak babestu beharreko baso lurra izatetik Gorde Beharreko Ertainekoa Sakabanatutako Etxebizitzen lurra izatera pasatzeko.

Akordioa jendaurrean egon da (2017ko azaroaren 14ko 219. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta prentsan) eta ez da alegaziorik aurkeztu.

Kontuan izanik Nafarroako Gobernuak ez duela txosten globala igorri.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 77. artikulua jarraituz.

Aho batez, eta legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ERABAKI DUTE:

1) Vicente Arocena Andueza jaunak sustatutako 5. poligonoko 347. eta 348. lur zatien egiturazko aldaketa behin behinekoz onartzea.

2) Espedientea Nafarroako Gobernura igortzea.

3.-ZIAURRIZKO KONTZEJUKO ESKAERA.

Ikusirik Ziaurrizko Kontzejuak igorritako idatzia.

Kontuan hartuz eskaera erdara hutsez dagoela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Ziaurrizko Kontzejuari idatzia euskaraz ere bidaltzeko eskatzea.

4.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du, 2017ko 163. ebazpenetik 170. ebazpena arte eta 2018ko 1. ebazpenetik 8. ebazpena arte.

5.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Bertzerik gabe, arratsaldeko 21:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Mentxu Peña Lizarazu and.

